



Pil-pilean

TRONKOPOL

Soraluzeko hilaletokaria
2025eko ekaina · 424 alea



SAGAR-ERREKA MIX

SHOW FREXKOA JAIETARAKO



PIL-PILEAN 424

2025eko uztaila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Begira Rifqa-ren deia | IRITZIA |
| 6 | Jaiak Aktualitateko albisteak | 3 Neuretik Aritz Arizaga Altuna
<i>Kontu txikixetan</i> |
| 14 | Argazki bidez San Andresko jai ederrak | 16 Gutunak LAB sindikatua <i>ELAk ez du 2024an adostutako laneko txanden akordioa bete</i>
<i>ELA Azkenengo gertaeren harira</i> |
| 18 | Erreportajea Sagar-Erreka Mix | 16 Komiki tira |
| 24 | Txosnaguneak Galtzagorrixak eta Plaza Zaharra | 17 Hausnarketa Zer duzu jaietatik gustukoen? |
| 27 | Kirola Futbitoa eta pilota | 17 Puntua Alberto Iñurrieta
<i>Erleak desagertzen ari dira</i> |
| 28 | Kultura Polo Opuesto, Los Tenampas eta Idoia Asurmendi | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez

ander@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



SORALUZEKO UDALA

Kontu txikixetan



ARITZ ARIZAGA ALTUNA

Kanta zaharrak diñuan bezela, ura bere bidian doia. Eta hala jarraitzen dabe askok uste izaten bizitzako une garrantzitsuak suzko erroberen parekuak dirala: zaratatsuak, ikusgarriak, koloretsuak eta planifikatuak. Kontrara, ordia, denborak erakusten dau eguneroko zer txiki horrek dirala bizitzari zentzua emoten dotsenak. Ustekabeko barre bat. Norbaitten begiradakin topo egittia hitz erdirik esan ez arren. Ogi egin berrixan usaiña, edo liburu batena. Egun sargori batian arbola batek emoten daben gerizpia. Gauza arruntak danak, sare sozialetan iñondik ere argitaratuko ez genittuzken horrek, ezereen garaikur ez diranak. Horretxek emoten dotse zentzua izatiari.

Azken hilabeteotan harrittu egin nau bizitzak. Esan neike beste begirada bat piztu dala neugan, eta orain arte ikusten ez nittuan, entzuten ez nittuan gauzez jabetzen hasi naizela. Lehen esandako horrek sentitzen hasi naizela uste dot, horrek bizitzen. Zoriontasun ihintz xume moduko bat igartzen dot, baju-baju berbetan.

Eta sentsasiño horrekin allegatu naiz uztailera; danok jai-giruan murgilduta edo murgiltziar gaozela. Zer esanik ez, jaixak burrunba, musika, jan-edana, barre algarak, besarkadak, dantzia eta mugimendua dira. Hori dana bai, baiña baita ume bati eskuan urtzen jakon izozkixa, aspaldi ikusi gabeko senide eta lagunekin egoteko aukeria, haurtxo bati urtetzen jakon lehenengo hagiña eta leihua zabalik desordutan egindako siestak be. Bizitza algara artian.

Akaso hortxe dago koxka: zelan begiratu gauzeri. Betiko eguneroko zerek dauken aparteko hori ikusten ikasi. Konturatu zelan izan leiken gauzarik txikixena, benetan, haundi.

Aurten, inoiz baiño gehiago, horretxekin geratuko naiz. Kontu ñimiñoekin, ix-ixa entzun be egin ez baiña barrenian sendo mugiarazten gaittuen horrekin. Zenbaittetan, gure izatiari zentzu osua emoten dotsana esku-barrenian hartu geinke, edo begirada batian, edo momentuan jakin barik betirako gordeko dozun oroitzapen batian. Azken fiñan, bizitza ez da zarata asko egiten daben ekintza sorta baten segida, ez. Bizitza beste bide batzuetatik doia, kontu txikixetan.

**AKASO HORTXE DAGO
KOXKA KONTURATU
ZELAN IZAN LEIKEN
GAUZARIK TXIKIXENA,
BENETAN HAUNDI**

Rifqa-ren deia

ARGAZKIA: JUAN FERNANDEZ

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

"Maha hiru urteko arrebak negar egin zion inozentziari, sionista kolonoak bere ohea erretzen ikusi zituen, beste Nakba bat, jada, beste krimenaren jainkotiar bat. Orain Mahak zortzi ditu. Badaki haren Nakba ez zela lehena, badaki ez dela ohea erre zioten ume bakarra. Badaki umeak erretzen dituztela. Mohamad Abu-Khudair, hamasei gasolina. Betazal guztiak itxita Rifqa bere etxera joan zen, ez zuen ezer ikusi. Bere begien grisean esan zuen, esan dezagun itsasoak irentsi zuela, ez kezkatu azaleratuko da. *'Ez du axola zein sakon urpetzen den, egia beti azaleratzen da'* ". Rifqa, Mohammed El Kurd. El Kurd poeta palestinarren amona zen Rifqa, ekintzaile ezaguna, eta ilobak berari eskaini zion poema liburua. Eguaztenean, hamaika herritarrek bere poemak irakurri zituzten plazan, Sol Band talde gazatarra lagun hartuta. Rifqak dei egin zion gizarte honi, mugitu dadin.





Askoren artean landutakoak

NEGU BUKAERAN HASI ZIREN JAIAK PRESTATZEN, IAZKOAK AINTZAT HARTUTA

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: PIL-PILEAN

"Herriko eragile, elkarte nahiz norbanako, udal langile zein zinegotzi eskuz esku egindako lanak" ondutako "emaitza oparoa" dira aurtengo jai nagusiak. Halaxe azpimarratu du Udalak.

Uztailaren 24an, eguna, hasi eta uztailaren 27ra arte, domeka, luzatuko dira. Aurtén, berezitasun modura, domeka eguerdi-arratsaldeko lehen orduan bukatuko dira ekitaldiak. Maite Quintanilla Kultura zinegotziaren esanetan, "eragileekin erabaki da eguerdira arte izatea jaietako azken eguna. Aurreko hiru egunak oso potenteak aurreikusten dira eta zentzurik ez zuen igandea luzatu luzatzearren".

Bestelakoan, jaien ezaugarri nagusietako bat da "gauza batzuk kanpotik kontratatutakoak" direla baina aldi berean, "ekimen asko herritik sortutakoak" direla, "ekimen parte-hartzaileak eta antolaketa bera ere herritarra dutenak".

Ekintza zaratatsuak iragarrita

Jaiek ekarriko dutenaren egitaraua joan den astean banatu zen etxez etxe eta Plaentxia.eus atarian ere bada irakurgai. Egitarauak badu berritasun bat eta da kohete batzuekin adierazita daudela zeintzuk izango diren ekitaldi



lazko kanoikadaren ondorengo ospakizuna.

zaratatsuak, "badakigulako pertsonek eta animaliek kohete eta halakoekin txarto pasatzen dutela eta identifikatuta izan dadin non aurreikusten den era horretako zarata. Helburua da horren berri eman, horri ere garrantzia eman, bakoitzak bere neurriak hartu ahal izateko, azkenean ez da denen gustukoa", esplikatu du Quintanillak.

Jaietako ekitaldiei eurei dagokienez, berriaz, badaude tradizionalak berriei uztartuta, baina oro har,

**"IAZKO EKITALDIEK
ZELAN FUNTZIONATU"
ZUTEN IKUSITA,
"EGITURA HORI
JARRAITU" DUTE**

"iazkoek zela funtzionatu" zuten ikusi eta "egitura hori jarraitu" dute antolatzerakoan.

Musika eskola pregoilari

Ohi denez, kanoikadak emango die hasiera ofiziala jaiari. Aurtén, pregoilari izango dira Soraluzeko Musika Eskolako ordezkariak, eskolak 35 urteotan egindako ibilbideari aitortza modura. Pregoa egiteaz aparte, musika eskolako bi kidek txarangarekin joko dituzte bi pieza ezagun, *Marras* eta *Egun da Santimamiña*.

Behin festak lehertuta, denetariko eskaintza izango da hiru egunotarako.

Denok askatasunez eta plazereaz

Berritasunen artean, adibidez, Sexubizi informazio gunea lehen egunean jarriko dute, "mezu horri indarra emateko".

Zentzu horretan, Quintanillak azpimarratu duenez, "Udalaren nahia da jaiak askatasunez eta plazerez bizitzea denok, ez dugu onartuko inongo eraso motarik eta konplize izatea ezta ere". Dena den, erasoren bat gertatzen bada, "protokoloa landuta dago eragileekin eta tabernekin".

Bestalde, kontzertuetako bat, Pancho Balbuenarena, ez ohiko eszenatokian izango da, Santa Ana kalean. Herri bazkariak ere izango du kokagune berria, Kalebarrenen eta zapatu

eguerdia indartzeko, Arrasateko gaiteroen eta Gariband taldearen kalejira izango da eta umeendako apar festa ere eguerdian izango da, frontoian. Eta besteak beste, iaz baino indartsuago eta ikusgarriago etorriko da zezensuzkoa zapatu gauean.

Adin bat gau bakoitzeko

Gauetakoarekin segituz, berriz, Quintanillak azpimarratu du gau bakoitza irudikatu dutela adin edo publiko guztiei eskaini ahal izateko. Hartara, lehen

gaua gazteekin pentsatuta dago eta 21:30ean DJ Txola ta Potxola izango dira plazan eta haien ondoren Janus Lester "oso modan" dagoen musikaria.

Barikua, berriz, mariatxien gaua izango da, Los Tenampas taldearen koikuskizunarekin -elkarrizketa 28. orrian.- eta azken gauean, zapatuan, berriz, eskaintza bikoitza dator Udalaren eskutik. Batetik, Idoia Asurmendiren musika lasaia plazarako -elkarrizketa 29. orrian.- eta bestetik Belakoren post-punka Zubi Nagusirako.

Azeituna hezur jaurtiketa, Mus eta Tute eta zezensuzkoa, berriro

Iazko arrakasta ikusita, aurten, Udalak antolatutako hainbat ekitaldi errepikatu egingo dira. Bata da azeituna hezur jaurtiketa. "Originala izateaz aparte, parte hartu ahal dute umeek, gazteek nahiz helduek, belaunaldi arteko ekimen bilakatuz. Iaz 50 lagunetik gora parte hartu zuen. Oso ondo irten zen, oso giro polita sortu zen", dio Quintanillak. Bada, aurten ere jokatu da, barikuan, 19:00etan udaletxe aurrean. Hiru maila izango ditu: 12 urtera arte, 13-17 urtera bitartean eta 18tik aurrera. Sariak izango dira "diru apur bat eta azeituna pote handi bat". Bestalde, iazko arrakastaren ondoren, Mus eta



Herritarrak azeituna hezur jaurtiketan, iaz.

Tute txapelketa ere errepikatuko da, barikuan, 17:00etan.

Zezensuzko indartsuagoa

Eta, besteak beste, errepikatuko den beste ekitaldi bat zezensuzkoa da. Nahi dute

iazkoa baino luzeagoa eta su handiagoa duena izatea. Gomendioa ere egin dute: haren azpitik eta ingurutik ibiltzeko, burua apur bat estali eta bakeroak eta arropa ignifugoak erabiltzea komeni da.

Danborrada ikusgarri dator

MUSIKARIAK KONTATUTA, 200 PARTAIDE BAINO GEHIAGO IZANGO DITU

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Iaz moduan, 22:00etan abiatuko da danborrada Txurrukenetik uztailaren 25ean. Ibilbidea da aurtengo inkognita nagusia, azkeneko momentura arte ez baitute argi izango, Gabolatseko zubi berriaren obrek baldintzatuta, “udaletxetik esperantza dute ahalko garella pasatu eta azken egunera arte ez dugu baztertuko”, diote. Dena den, badaezpada, prest dituzte hiru plan ibilbiderako, zubiarekin, zubi gabe eta euria bada, A, B eta C planak, "denerako izan behar da aukera", diote.

Atxurin, Zubi Nagusian eta Plaza Zaharrean egingo ditu danborrak geldialdiak. “Atxurin bi abesti joko ditugu egoitzakoendako; abisatuta daude, jaitsi nahi badute ikustera”

12 konpainia

Partaideei dagokienez, 159 herritarrek desfilatuko dute, gehi 45 musikarik, herrikoiez aparte, Eibarko, Bergarako, Arrasateko eta Tolosako errefortzuekin. Beraz, 200 lagun pasaren desfilea izango da.

Honako piezak joko dituzte, Donostiako danborradako lau: *Martxa, Diana, Tatiago* eta *Iriyarena; Debako Martxa, Pantxika* Eibarkoa, *Txokolo* Azpeitiko, *Artillero* Tolosakoa, eta Soralueko hiru kanta, *Sekula ere, Zezenak dira* eta *Atxolin* kalejira, orain "martxa"



Danborradako entsegua, eguaztenean.

bihurtuta, aurtengo estreinatuko duten pieza.

Konpainiak iazko berberak izango dira –beheko taulan-. Osterantzean, kanoiarekin joango dira Enaitz Oruesagasti, Oier Cerrejon, Leire Elizburu eta Carlos Dominguez. Banderadunak izango dira Miren Osinaga eta Haritz Perez. Damaris Ojeda izango da, berriz, kantineren buru. Eta kantinerak izango dira 4. DBHra pasatzen diren 10 lagun. Bestalde, Mendizabalen prestatutako ogia Ane eta Iñaki Gabilondo aita-alabak eramango dute eta indioilarra, berriz, Inma Matutek

DONOSTIAKO, DEBAKO, AZPEITIAKO ETA SORALUZETAKO PIEZAK JOKO DITUZTE DANBORRADAN

eta Alberto Errastik. Eta guztien zuzendari izango dira Luis Urizar eta Unai Larreategi.

Talde antolatzaileak esandakoaren arabera, aurtengo "errazagoa" egin zaie lana, "ez gaude hain galduta, jantziak banatzeko sistema gurera egokitu dugu eta hori, adibidez, oso arin joan da".

Konpainiak

Mikeleteak, Kantinerak, Agintariak, Arrantzaleak, Gudari urdinak (danborrekin), Gudari gorriak (barrilekin), Gozogileak (danborrakin), Sukaldariak (barrilekin), Sukaldariak (ez dutenak jotzen), Aparejeruak, Ehiztariak, Kanonistak.

8-9 behi ekarriko dituzte

UZTAILAREN 26AN, 07:30EAN ETA 18:00ETAN IZANGO DIRA ZEZENAK

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: ARNO GANADUTEGIA

Txordo, Buztantxuri, Larrion, Culebra, Adarzabal... eta *Plaentxi*. Hortxe Santa Ana egunean Soraluzera ekarriko dituzten behien izenetako batzuk. Azken horren kasuan, justu, Soraluzen ihes egin zuela-eta ipini zioten *Plaentxi* izena. "Orain dela 10 bat urte kamioi ondotik ihes egin eta futbol zelairantz joan zen. Etxeak bukatzen diren lekuan buelta eman eta biribilgunean harrapatu genuen. Horrexegatik dauka *Plaentxi* izena, horrela irteten dira behien izenak", esplikatu du Mutrikuko Arno ganadutegiko Andoni Mugertza ugazabak.

8-9 behi

Mugertzak kontatu duenez, 8-9 bat behi ekarriko dituzte. "Ordu eta erdiko paseak direnez, gutxi eramanda denbora gehiago pasatu behar gutxirekin eta arriskua handitu egiten da ganaduarendako, hanketatik gastatu... 8-9 bat behi eramango ditugu, bakoitzak 10 bat minutu egiteko. Bat gehiago eramatea ez da kostatzen".

250 bat kilo

Legea errespetatuz, 300 kilo azpikoak izango dira guztiak ere. Santa Ana arratsaldean jende asko eta denetarikoa izaten denez, baita kanpokoak ere, eskola handiagoa duten animaliak askatuko dituzte.



Gazteak zezenetan, iaz.

Goizean, berriz, gaztexeagoak. "Jende gehiago dagoenean, ganaduak lan gehiago egin behar du eta horregatik", esplikatu du Mugertzak.

Toki ona ez baina ambientea bai

Mutrikuarrek tradizio luzea dute Soraluzera etortzen. 40 urte izan litezke, nahiz eta seguru ez jakin zifra zehatza. Gustura etortzen direla dio Arno ganadutegiko ugazabak, nahiz eta "bakter beltz asko" izan. "Toki on-ona ez da, baina bertako ambientea, jende

ezaguna... bertako jendearekin tratatzen duzunean gusturago ibiltzen zara, beste herri batzuk hotzagoak dira, joan, egin eta etxera. Soraluzera, berriz, pozago joaten da. Baina bazter beltz asko daude Soraluzen behiek min hartzeko eta Gipuzkoan ganaduari zerbait pasatuz gero, abeltzainak galtzen du, ez da Nafarroan moduan. Han, adar bat galtzen badu, kojo geratu... ordaindu egiten dute. Gipuzkoan ez. Baina badakigu zer pasa daitekeen, beraz... Pena bakarra da lehen Plazentzian umeendakoak ere egiten zirela eta orain ezin dira egin".

Kontuak kontu eta penak pena, zezenera "etortzeko eta disfrutatzeko ahal den moduan" dio Mugertzak, eta, noski, "ondo pasatu eta behia kurioso zaindu".

**"KAMIOI ONDOTIK IHES
EGIN ETA FUTBOL
ZELAIRANTZ JOAN ZEN
BEHIA, HORREGATIK DU
PLAENTXI IZENA"**

Dantza, kirola eta jolasa

ETXEKO TXIKIENEGUNERO IZANGO DUTE ZER AUKERATU JAIETAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: PIL-PILEAN, TXOLA TA
POTXOLA, BUZTINTXURI

Atzotik, uztailak 17, etxeko txikienak eta gazteenak izango dira jai-giroaz disfrutatzen lehenak, atzo ireki baitzituzten muntatuta zeuden Erregetxeko barrakak eta atrakzioetako. Falta direnak, berriz, egunotan muntatu eta zabalduko dituzte. Autotxokeak, lapikoa, zezentxoak, txiki-parkea, ohe elastikoak, tiro pitxioia, ahatetxoaren arrantza eta txurrodenda izango dira Erregetxean uztailaren 29ra arte. Fitxa bakoitzak 2,50 balioko du.

Aurten, berezitasun modura, bi umeen egun izango dira, 23a eta 28a. Biotan barrakaren prezioa izango da 1,50 euro.

Mendaroko DJ bikotea

Osterantzean, egunero izango dute zer aukeratu umeek eta gazteek. Berritasunen artean eta hainbat gazteren eskaera tarteko, DJ aldaketa egin eta Oihan Vegaren lekua beteko dute Mendaroko DJ Txola ta Potxolak, egunean, 21:30ean Plaza Zaharrean. Bi gazteak gogotsu datoz Soraluzera. "Demaseko gogoia dugu" kontatu dute. "Ez gara inoiz egon. Mendaroko eta Soraluzeko jaiak normalean egun berdinean izaten dira eta ezin izan gara inoiz joan. Ez dugu inoiz Gogotsu gaude hango ambientea ikusteko. Esaten dute jaiak ondo daudela



Barrakak.



Erraldoi eta kilikiak.

eta motibatuta bagaude, behintzat". Aurreratu dutenez, batez ere, reggaettoa jartzen dute euren saioetan, "baina ez 04:00etan entzutekoa, gazteek entzuten dutena, batik bat. Eta euskal musika ere saiatuko" dira jartzen.

Erraldoiak eta kiliak eta beste

Bestalde, aurten ere izango da erraldoiak ikusteko aukera. Bariku eguerdian egingo dute kalejira erdigunean eta aurten kilikiekin lagunduta etorriko dira, Buztintxurikoak, Iruñetik.



Txola ta Potxola.



Umeak korrika, orain bi urte.

Zapatuari dagokionez, egun osoan puzgarriak izango dira frontoian, eta 13:30ean, apar festa ere egingo dute bertan.

Azkenik, domekan jokatuko da herri krosa. Iaz moduan, aurten ere, 2-16 urte bitarteko ume-gazteek parte hartu ahal izango dute, adinaren arabera banatuta. 11:00etan hasiko da Plaza Zaharrean eta adinez txikienekoekin hasiko da krosa. Aldi berean, zubian, haur, gazte eta familiendako *Bizijolas* izeneko jolasgunea izango da.

"Batzuek aukera izango dute eszenatokian gurekin abesteko"

GARAZI URKOLA GO!AZEN-EKO AKTOREA ETA DANTZARIA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: GO!AZEN

Garazi Urkola (Villabona-Amasa, 1998), Oihane da Go!azen 11. denboraldian. Soraluzen izango da uztailaren 25ean, Plaza Zaharrean, Go!azenen karaokean.

Zein lagunekin etorriko zara?

Kimetz Etxaberekin eta Irati Marinekin, Go!azenen Gontzal eta Izar. Karaokeak hiruron artean egiten ditugu gehienetan.

Errezetaren bat ekarriko duzu?

Mmm, guk, justu, uztailaren 25ean, etxean ohitura dugu bazkaria egiteko eta normalean kozinatzen dugu txipiroiak tintan arrozarekin. Soraluzeko jendeari ere horixe gomendatuko nieke.

Zeliakoentzat aproposa egin daiteke, noski. Nik gluten gabe jan behar izaten dut eta ondo zaindu behar izaten dut hori.

Ze koreografiatzuk prestatzea gomendatzen diezu ikusleei?

Go!azen 11ko kantuak errepasatzea gomendatuko nieke, bastante abestuko ditugu-eta.

Zeuretzat, dantzari fin moduan, zein da kanta gu?



Garazi Urkola 'Oihane' eskuman.

Gusturen dantzatzen dudana da *Ez dakit zenbat denbora daramadan hemen* edo *Aralarko dama*. Direlako oso mugituak, korografia oso dibertigarriak dira, taldean kantatzeko atseginak dira eta ondo pasatzen dugu. Eta orokorrean ikusleei ere gustatzen zaizkie, beti sentitzen dugu ikusleen indarra bueltan eta oso polita izaten da hori. **Laguntza beharko duzue, ezta?** Nahiko laguntza beharko dugu. Eztarriak ondo berotuta ekartzea ondo etorriko zaie.

Laguntza beharko dugu ikusle bezala, indarra eta ahotsa beharko ditugu abesti batzuk aurrera ateratzeko, eta abesti batzuetan batzuek aukera izango dute eszenatokira igo eta abesti batzuk gurekin batera abesteko. Euren laguntza garrantzitsua izango da.

Gurasoendako mezuren bat?

Etortzeko eta animatzeko. Goitik oso-oso polita da ikustea nola haurrek eta gurasoek elkarrekin ondo pasatzen duten. Piloa eskertzen dugu gurasoek jartzen duten indar eta motibazioa eta pentsatzen dugu oso eredu ona dela seme-alabentzat gurasoak eta herriko erreferente helduagoak dantzatzen, kantatzen eta ondo pasatzen ikustea. Da espazio bat ondo pasatzeko eta disfrutatzeko. Animatzeko beldurrik gabe. Gainera, horrek puntuak igotzen ditu ikusleen artean egongo den lehiaketatxoan.

Besterik nahi baduzu esan...

Etortzeko, ondo pasatzeko eta animatzeko gurekin batera dantzatzera, abestera eta momentu hori elkarrekin partekatuzera.

Jaiak gozatzeko aukerak

SALDA ETA TXORIZOA, TORTILLA ETA BAKAILAO LEHIAKETAK ETA GAZTA DASTATZEA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIAK: PIL-PILEAN, ITZIAR AGIRRE ETA
ESTHER CRUZ

Jaietako ekitaldi gastronomikoak oso preziatuak izaten dira herritarren artean eta aurten ere izango da zer aukeratu.

Esaterako, hiru bazkari herrikoi izango dira. Lehen egunean gazteena, zubian, 15:00etan. Bigarren, herri-bazkaria, aurten Kalebarrenen berritasun modura, 15:00etan hasiko da eta hiru menu izango dira aukeran, arrunta, begeta/

halal eta umeena. Eta hirugarren egunean, presoen aldeko bazkaria izango da, hori Plaza Zaharreko txosnagunean, 14:30ean.

Bestalde, ohiturari eutsi eta, uztailaren 25etik 27ra, goizero banatuko dute salda eta txorizoa anbulatoriopean, Lagun Maitea, Arrano eta Allegro elkarteek hurrenez hurren.

Tortilla lehiaketa berriro
Lehiaketek sendotuko dute jaietako eskaintza

gastronomikoa. Bi izango dira, gazteendako tortilla lehiaketa eta bakailao lehiaketa. Gazteendako tortilla lehiaketari dagokionez, iaz izan zuen estreinaldia, "oso ondo funtzionatu zuen eta gazte-kontseiluan oso ondo baloratu" dute, esplikatu du Maite Quintanilla Haur eta Gazte zinegotziak; hori horrela, aurten errepikatu eta tortilla lehiaketa jokatu da jaiak hasteko. Hitzordua da uztailaren 24an, 11:00etan Plaza Barrixan. LH5etik DBH 4ra



ANGEL ALDAZABAL ETA INAZIO ZUBIZARRETA BETERANOENAK

"40 bat urte daramatzagu aurkezten"

"40 bat urte daramatzagu aurkezten. Kuadrilako sukaldariak gara Txanbua eta biok. Elkarteko bazkari-afariak guk egiten ditugu. 25. urtean atera genuen lehen saria lehen aldiz. Bi bider-edo irabazi dugu eta hirugarrena birritan. 2. saria falta zaigu. Aurten ere apuntatu gara. Momentuz, ondo gabiltza eta aurrera, ea aurten 2.a ateratzen dugun".



ESTHER CRUZ ETA PETRI ROLO EMAKUME BIKOTE BAKARRA

"Andre gehiago egon beharko lirateke"

"Ez dugu ulertzen zergatik lehiaketa dagoen gizonekin monopolizatuta. Tradizioekin apurtzea zaila da baina andre gehiago egon beharko lirateke. Gu harro gaude parte-hartzeaz. Gure kuadrilan beti egon dira 2-3 gizon bikote eta inoiz ez dute irabazi. Esan genien apuntatzen bagina aurretik geratuko ginela. Eta parte hartu genuen lehen urtean bigarren geratu ginen".



OIHAN ETA EKAIN AGIRRE GAZTEENAK

"Ni ezin banaiz joan anaia joango da aitarekin"

"Orain bi urte, aitaren bikoteak ezin izan zuen lehiaketara joan eta eskaini nion neu joatea (Ekain). Aitari ilusioa egin zion eta sari bat irabazi genuen. Hurrengo urtean ere elkarrekin joan ginen eta aurten, dudan daukat egun horretan lan egin behar dudan ala ez, eta adostu dut ez banoa lanera neu joango naizela aitarekin eta bestela, Oihan anaia joango dela".

arteko gazteei zuzenduta dago, bi mailatan banatuta, LH5etik DBH1era eta DBH2tik DBH4ra eta sariak izango dira maila bakoitzeko. A mailako parte-hartzaileek heldu batek lagunduta joan behar dute. Izen-ematea zabalik dago.

Tradiziozko bakailao lehiaketa

Bakailao lehiaketari dagokionez, horixe da herriko jaietan tradizio luzeenetarikoa duen ekitaldietako bat. Partaide beteranoek buruan dutenez, laster 50 urte izan litezke lehiaketa hori egiten dela. Hitzordua, ohi denez, Santa Ana egunean da, Plaza Zaharrean. 11:30ean hasiko dira bakailaoak prestatzen. Gero, epaimahaiak bakailaoak baloratu, txapeldunak erabaki eta sari banaketa egin ondoren probatu ahal izango dira



Gazteen tortilla lehiaketa iaz.

lehiaketarako prestatutako bakailaoak.

Lehen orriko inkestan azaltzen dira aurten izena eman dutenen artean lehiaketako partaiderik beteranoenak, gazteenak eta aurkeztu den

emakume bikote bakarra -horiek guztiak momentuz, ze izen-ematea itxi barik zegoen artikulua hau idaztean-. Izen-ematea itxiko da dauden 16 lekuak betetzen direnean.

Gazta eta sagardo dastaketa

Eskaintza gastronomikoa borobiltzeko, Debabarreneko Gazta eta Sagardo dastaketa ere izango da aukeran. Uztailaren 25ean, 12:00etan, Plaza Barrixan prest izango dira Egotzako ahuntz-gazta, Mausitzako ardi-gazta eta Lizagar Saragotokiko sagardoa. 3,5 euroan tiketa erosi eta bi pintxo jateko eta sagardoa nahi beste edateko aukera izango da.

Azkenik, Soraluzeko Arrozak ekimena ere egin nahi du Udalak, baina izen-emate baxua tarteko, gaur, barikua ikusiko da egin ahalko den.



MIKEL IÑIGUEZ
DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA

INPLANTOLOGIA

PERIODONTIA

AHO KIRURGIA

AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA

SEDAZIO KONTZIENTEA

CBCT 3D TEKNOLOGIA

RPS: 81/25



WWW.IÑIGUEZDENTALSTUDIO.COM

 IÑIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

 616 68 03 11

Jai ederrak

TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ UNAMUNO

Aurten ere jende asko ibili da San Andresen. Zapatuan, Jose Luis eta Garazi Catalan aita-alabek ezusteko polita hartu zuten tortila lehiaketan lehen saria jasota. Asier Fernandezi eta Mikel Oregi 'Letu'ri ere dezenteko ilusioa egingo zieten txapelek. Zezenek jendetza batu zuten eta nahikoa espektakulu eman zuten batzuk. Gauean, plaza bete zuen Fan&Go-k eta goizaldean autobusa "Bustindui"-k. Eguerdian, Atxotegik eta konpainiak egurra pilotan eta abadea berandu meza ematera. Bertsolariak ditziratsu eta izetatarrak bixi-bixi. Zezenarekin batera, bola-premioa eta han, Markinako 'Apaiza' garaile. Astelehena mantso. Tertulia luzeak, Egañaren eta Lizasoren bertsoak eta dantzak Laja eta Lutxurdoren erritmora. Ostean, umeendako jolasak eta Ana Mariren garaipena boletan... Beste behin, jai ederrak San Andresen.





GUTUNAK

ELAk ez du 2024an adostutako laneko txanden akordioa bete

LAB SINDIKATUA

Mesedeetako Ama Adinduen Egoitzan urte luzez iraun du laneko txanden inguruko gatazkak. Ageriko desberdintasunak zeuden langileen artean, gehienbat, batzuek pribilegioez gozatzen zutelako. 2023an, LABek hauteskunde sindikalak irabazi eta horri buelta ematen hasi zen. Hamaika asanbladaren ostean, langileen gehiengo txanda errotatiboen alde jarri zen.

Hala ere, 2025ean, ados ez zeuden langile horiek, akordioari muzin egin eta berriro ere inpugnazioa sartu zuten, langileen gehiengoak eta beraiek ere akordatutakoari jaramonik egin gabe.

Epaiketako sententzia iritsi berri da, eta langileen berdintasunaren alde egiten du, justizia langileriaren gehiengoaren alde jarri da. Sententzia firmea da, eta pribilegioei ez die lekurik uzten Soraluzeko adinduen egoitzan. LABetik argi diogu, behingoz justizia egin dela, eta langileen berdintasunaren alde borrokan jarraituko dugula! Gora langileen borroka!

Azkenengo gertaeren harira

ELA SINDIKATUA

Uztailaren 9an Soraluzeko erresidentziako hiru epaiketa burutu ziren. Erreklamazioen helburu nagusia kontziliazio neurriak aplikatzea da, lanaldia murriztuz.

Horren aurka LABek elkarretaratzea deitu zuen

epaitegian. Alde batetik, kontziliaziorako eskubidea guztion oinarrizko eskubidea dela gogorarazi nahi dugu, eta bestetik, Gipuzkoako erresidentzia eta eguneko zentroetan greba eguna zela hura, borroka kolektiborako unea. Egunerokoan, gure lanarekin etekinak ateratzen dutenak, hau da, gure kontra egiten dutenak seinalatzeko momentua, gure lan eta bizi baldintzak hobetzeko borroka eguna. Ez lankideen arteko lehia areagotzekoa. Zentroaren gestioa okertzen doa urtez urte eta horren erantzule bakarra patronatua da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Zer duzu jaietatik gustukoen?

Herriko jai nagusietako ekitaldien artean zein den kuttunena edo gustukoena galdetu dugu.



**TELMO DURAN
LAMARIANO**

"Dultzaineroak gustatzen zaizkit gehien-gehien, egiten duten musikarengatik, eta buruhandiekin txoka-txoka ibiltzen naiz. Aurten ere ibiliko naiz buruhandiekin eta erraldoiak ikusten, eta barraketara ere joango naiz. Bolatxoduna gustatzen zait".



MILA PLATA FRANGO

"Danborrada gustatzen zait gehien; batetik ni irtengo naizelako eta bestetik, gozada bat delako, oso-oso ondo pasatzen dugu. Eta gero, danborradaren ondorengo berbena. Denok geratzen gara eta oso ondo ibiltzen gara. Hortik aparte, goizeko kontuak"



**EDORTA KORTAZAR
ZUBIATE**

"Danborrada hasi da berriro eta oso pozik nago horrekin, ikustea gustatzen zait. Jende asko egoten da. Normalean plazan ikusten dugu, han egiten dute saioa eta hantxe. Bestela umeekin barraketan ibiltzen naiz, auto-txoketan ibiltzen naiz oraindik".



**FRANCISCO IGLESIAS
RODRIGUEZ**

"Pintxoak, goizean anbulatoriopean ematen dituztenak. Gero ez naiz gehiago irten ere egiten jaietan, pintxoak jan eta etxera. Txorizo pintxoa oso gustuko dut. Lehen auto-txokeetara ere jaisten nintzen, baina orain ez daukat horretarako adinik".

PUNTUA



ALBERTO IÑURRIETA

Erleak desagertzen ari dira

Orain dela miloika urte, gizakiok planetan bizi baino askoz gehiago, erleek bazekiten haien buruak defendatzen ezbeharren aurrean. Osasuntsu bizi ziren beren buruak zainduta zuhaitz zuloetan edo adarretatik zintzilik gizakiaren esku hartzerik gabe. Erleen inguruan era ez zuzenean, eskua hartzea erabaki genuen une berean, gu bezala, haiek ere botiken menpeko bihurtu genituen ekoizpena hobetetzearen edo gehitzearen izenean.

Erleek landare espezie ezberdinak polinizatzen dituzte. Gure elikagaien %80ak euren polinizazio prozesuaren beharra dute. Ezin ditugu utzi desagertzen. Zorionez, gero eta erlezain eta kontsumitzaile gehiagok ezeztatzen dute produktu kutsatuak eta horri esker erleak gero eta gehiago zaindu ahal ditugu. Argi dago, erlezainak produktu ekologikoa erabiltzen ikasi behar duela erlauntzari laguntzeko eta guztion onerako eragin bikoitza lortzeko.

Planeta honetako izaki guztiak bere zerbitzurako sortuak izan direla pentsatzea izan da gizakiaren ideiarik suntsigarriena. Suntsipen ekologikotik ihes egin nahi badugu ikas dezagun erlea eta Natura errespetatzen, zaintzen eta eurengeandik ikasten.



Herriko musikarien show umoretsua

Musika eta herriko gaien inguruan parodiatutako letrak izango ditu osagai nagusi Sagar-Erreka Mix showak. Herriko musikariek jaietako lehen egunean, gaueko ordubatean, eskainiko dute elkarrekin prestatu duten ikuskizuna txosnaguneko oholtzan. "Herriar guztiak" gonbidatu dituzte bertara.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Ubane Madera Zangitu**.

ndartsu hasiko dira jaiak Zubi Nagusian, lehen gauean Sagar-Erreka Mix ikuskizuna taularatuko dute-eta Galtzagorrien txosnaguneko eszenatokian. 2022ko Caribe Mix ikuskizunaren bidetik, herriko 15 musikarik gorpuztuko dute Sagar-Erreka Mix. 36 urte dituzte beterranoenak eta 16, berriz, gazteenak.

Errepertorioa osatu dute jai-giroko kantu euskaldunekin: The Uski's-en *Horrelako*, Suneren *Lau Korapilo*, Kaparrak-en *Gaupasa...* Bereztasuna da musika bertsionatzeaz gain kantuetako batzuei letrak "plazentziartatu" dizkietela, "beti umoretik, noski".

"Barre mordo"

Gazteak apiriletik ari dira lanean, lokalen faltan, musika eskolan entseatzen, hasieran domekero eta intentsitate handiagoz orain. Koordinazioak "nahikoa lan" sortzen badie ere, primeran pasatzen ari dira "barre mordo" egiten, batez ere, letren aldaketa kontuekin. Eta uste dute hori kontzertura doazen ikusleek ere biziko dutela.

Protagonisten berbak

Ondorengo orrialdeetan zazpi protagonistaren berbak jaso ditugu: Mikel Hernandez abeslari nagusiarenak, Andoni Ariznabarreta partiturgilearenak, Ines Lascurain partaidea beterranoenetakoarenak, Sagar Ostolaza, gazteenarenak, Aimar Bengoa, Bilbon bizi arren emanaldian parte hartuko duenarenak eta Jondar Plata eta Ander Gomez, sokazko instrumentuak joko dituztenenak.



Partaideetako batzuk uztailaren 4ko entseguan.



MIKEL HERNANDEZ ABESLARIA

Berak ez du onartzen, baina zela edo hala, Mikel Hernandez (Soraluze, 1989) da Sagar-Erreka Mix-en zuzendaria. "Berak gidatzen gaitu. Berak dauka ideia bat

buruan beti eta gutxi gorabehera forma ematen diogu, bere ideiekin egiten dugu", kontatu dute taldekideek. Abeslari nagusia ere bada.

2022an Caribe Mix, aurten Sagar Erreka Mix. Zeintzuk dira aldaketa nabarmenenak?

Asmoa izan da egitea antzerako zerbeit. Hura oso polita irten zen, baina dena gaztelaniaz. Orain, saiakera da gustatzen zaigun musikarekin eta euskaraz egitea. Udako musika, euskaraz eta gainera, Plazentziakoa, gure gustuko kakak.

Zela egin duzue musikarien aukeraketa?

Galtzagorriek izan zuten bilera bat. Komentatu zuten Hatortxu Rock jaialdiak hemengo jaiekin

kointziditzen zuela-eta zaila zela talderik onenak lotzea. Zapaturen baten Bolian elkartuko ziren eta Galtzagorri batzuk hasi ziren tentatzen, eta halaxe, nahiko modu naturalean elkartu ginen. Faltza zitzazkigun instrumentuen musikariei galdetu eta segituan esan zuten baietz. Orain dela hiru urte bi eibartar ere egon ziren kantuan. Aurten denak dira autoktonoak, harrobikoak. Hau da daukaguna, ba horrekin aurrera!

2022an baino gehiago zarete gainera.

Bai, komentatu izan dugu, zelan kabituko gara? Ta pentsatu dugu *avanzeari* ipintzea taulari. Kabituko beharko gara.

Letra oso bereziak izango dira, ezta?

Batzuk bai, egokitu egin ditugu. Batzuk dira zirikatzaileak, baina umoretik beti. Komentatu izan dugu txirigoten estilora.

Entzun dut nahi duzuela ikusleek zuekin kantatzea.

Bai. Bururatu zaigu eszenario alboan-edo proiektore bat ipintzea letrekin. Caribe Mix-ek zituen letra eta dantza guztiak ezagunak, eta ondorioz, hura izan zen arrakasta segurua, katxondeo erabatekoa. Oraingoan hura ez da berdinduko, baina asmoa ere ez da hori. Hau da beste zerbeit.

Zuek zela bizi zenuten Caribe Mixen esperientzia?

Ez genuen espero horrenbeste jende. Plaza Zaharra hutsik geratu zen.

Beste zerbait nahi baduzu esan...

Animatzea denok ikustera etortzera. Asmoa da ondo pasatzea. Herriarrek egindakoa herriarrek ondo pasatzeko. Umorea, dantza, perreatu, ondo pasatu... zer egingo dugu ba jaietan?



**ANDONI
ARIZNABARRETA**
TRONBOI-JOTZAILEA

Tronboi-jotzailea da Andoni Ariznabarreta (Soraluze, 1999) eta instrumentu horixe joko du Sagar-Erreka Mixen, bestelako lanak egiteaz batera;

adibidez, berak egokitu ditu kanten partiturak haizezko instrumentuetara.

Zer iruditzen zaizu Sagar-Erreka Mix?

Gazte desberdinak elkartzea halako gauza bat egiteko iruditzen zait super ondo. Izango den show-a ere denetarikoa izango da, animatua, hori seguru, eta, ondo pasatzeko. Mikelek esaten zuen jende gaztea erakarri behar dela. Eta arrazoia zuen, ze bakoitzak ikuspuntu bat dauka eta denok batuta gauza hobea lortzen dugu. Gainera, polita da ikustea jende desberdina elkartzen garela halako zerbait egiteko. Musikalki gauzak prestatzea ere gustatzen zait eta entseatzea ere bai. Azken urteetan dugun arazo nagusia da ez dugula lokalik entseatzeko; hor ikusten dut arazo bat ze jende gaztea akaso ez da animatzen halakoetan parte hartzera edo bere taldeak sortzera lokal faltarengatik; batzuk badute aukera musika eskolan, baina hortik kanpo ez dago.

Zein kanta ari da ondoen geratzen?

Denekin gabiltza lanean eta ikusiko dugu zer irteten den. Niri pertsonalki gehien gustatzen zaizkidanak dira runbak eta egongo dira batzuk. Hor haizeek ez dugu jo behar, baina txaloak eman behar ditugu beraz ondo pasatuko dugu, seguru.

Zein gonbidatuko zenuke ikuskizunera?

Mundu guztia. Ikusita Caribe Mix-en arrakasta, nahiz eta bereziki ez ginen joan esaten. Jendea animatu zen herriko jendea zegoelako, gero ondo pasatzen hasi ziren eta han gelditu zen jende



Ander Ariznabarreta, Markel Gil eta Aimar Bengoa.



Ander Gomez eta Jondar Plata.

"UMOREA, DANTZA, PERREATU, ONDO PASATU... ZER EGINGO DUGU BA JAIETAN?"

MIKEL HERNANDEZ, ABESLARIA

piloa. Animatuko nituen etorri ziren guztiak, espektakulua izango da eta ondo pasatuko dugu.



INES LASCURAIN GITARRA-JOTZAILEA

Ines Lascurain
(Soraluze, 1989)
musikari
beteranoena da
Mikel
Hernandezekin
batera. Gitarra joko
du Sagar-Erreka
Mixen. Lascurainek

ere errepikatu egingo du esperientzia, Caribe Mixen ere izan zen-eta.

Beraz, ez zinen damutu Caribe Mixen parte hartu izanaz?

Ez. Aspaldi nengoen halako gauza batean parte hartu barik eta Caribe Mix-en oso ondo pasatu genuen, batez ere, entseguetan. Niri kontzertuak ez zaizkit asko gustatzen, baina entseguetan oso ondo pasatu genuen eta da aukera bat jotzeko etxetik kanpo, ikasi duzun guzti hori aprobetxatzeko, ze bestela etxean jotzen dut bakarrik.

Hortaz, entseguak gogokoena?

Entseguak eta jendea. Ni pianoan nengoen eta burua jaso eta jende hori guztia ikustea, zubia beteta... Ez genuen espero eta pentsatu nuen, *zelan erakarri dugu herri guztia hona?* (Barre)

Zelan ikusten duzu Sagar-Erreka Mix?

Desberdina da. Lehen zen abestia hartu eta errepikatu. Orain da abestia hartu, letrak aldatu eta gure erara moldatu. Izango da gehiago ikuskizun bat kontzertua baino. Gustatu ahal zaio jendeari edo ez, ze, gainera, letrak aldatzera akaso norbaitek txarrera har dezake; espero dezagun ezetz, jendeak ikustea benetan brometan gabiltzala, ez dela inorekin sartzera joatea.

Orain zer da gustukoena?

Orain anbienteak, ze letren kontuekin egundoko barreak egiten ditugu. Ondo pasatzen ari gara.

Zuk 36 urte, gazteenak, 16 urte. Badator harrobia?

Bazen ordua. Orain arte, halakoen bueltan beti ibili gara igualak. Ematen zuen gazteek ez zutela nahi sartu edo ez zutela aukerarik ikusten, akaso talde itxia ematen genuen. Aurten saiatu gara gazteagoak bilatzen eta bi animatu dira, beraz ea halakoekin jendeak ikusten duen euren kabuz ere

egin dituztela gauzak. Ze igual gazteak daude ohituago musika eskolaren eskutik egiten gauzak, abestiak irakasleek aterata... eta halako gauzekin ikusten duzu zeu ere kapaz zarela gauzak egiteko zeure kabuz.



AIMAR BENGOKA TRONBOI-JOTZAILEA

Aimar Bengoak
(Soraluze, 1991)
tronboia joko du
Sagar-Erreka
Mix-en. Bilbon bizi
den arren,
ikuskizunean parte
hartzera animatu
da; gainera,

bigarren aldia du, Caribe Mixen ere parte hartu baitzuen.

Herrian bizi ez arren, Sagar-Erreka Mix-en parte hartzeko ahalegina egiten ari zara. Zergatik?

Ba beti animatu izan naiz halako kontzertuetara, lehen gaztetxean egiten ziren karnabaletako bertsio gauetan (hor sortu zen Caribe Mix) eta gero jarraitu dugu jaietan txosnetan zerbait egiten. Azkenean, jai herrikoietan denok parte hartu behar dugu modu batean edo bestean eta nik musikarekin, txaranga, danborradan edo kontzertuetan jota.

Caribe Mix erabateko arrakasta izan zen; zelan ikusten duzu Sagar-Erreka Mix; musikalki hobea bai, behintzat?

Hobea baina desberdina. Caribe Mixek tematika zehatz bat zeukan baina abesti guztiak erdaraz ziren. Sagar-Erreka Mix euskaraz izango da eta herriarekin lotura gehiago izango du.

Zuek (partaideak), behintzat, ondo ari zarete, ezta?.


Bai, entsegu dezente egin dira kontzertu hau prestatzeko, errepertorioa, letrak...

Ez da oso ohikoa horrenbeste haizezko instrumentu.

Egia esan ez; asko animatu ginen eta herriko jendearen parte hartzearekin egiten denez, ba ahots desberdinak aterata denok jotzeko aukera daukagu.

Zuen kasuan, anaiak eta biak jotzen dituzue haizezko instrumentuak, etxean zaletasun bereziren bat duzue?

Ba ez egia esan, txikitatik musika eskolan egon gara biok eta orain musikaz eta instrumentuaz disfrutatzen jarraitzeko eta jaietan herrikoa den kontzertu bat emateko aukera da hau.



JONDAR PLATA ETA ANDER GOMEZ SOKAZKO INSTRUMENTUAK

Jondar Platak (Soraluze, 1998) eta Ander Gomezek (Soraluze, 1995) Ines Lascurainekin batera joko dituzte sokazko instrumentu bakarrak, baxua eta gitarra hurrenez hurren.

Sokazko nahikoa izango zarete?

Gitarra bat irabazi dugu, Ines, eta rantxerak eta rumbak jotzeko ondo datorkigu. Kontran, teklatura galdu dugu, eta pena da ze soinu infinituak dauzka eta kantuak asko betetzen ditu. Baina, Jondarrek erosi du baxuarendako efektu pedal berezi bat, soinu estralurtarrak sortzen dituen eta elektronikoago diren bizpahiru abestietan sartuko dugu, jendeak flipatu egingo du, seguru.

Caribe Mix eta gero, berriro parte hartuko duzue halako ikuskizun baten...

Seguru baietz. Arazo bakarra da jendea taldera gehitzen jarraitu ezker azkenean zubi osoa guretzat hartu beharko dugula eta publikoa taula gainean jarri... Baina bai, ideia on eta original bat dagoen bitartean, aurrera.

Letrak aldatzea ideia ona da, jendea haserretuko da...

Idea ona. Guk, behintzat, barre asko egin dugu prozesuan. Azken finean, herritarrak kezkatzen dituen eta askotan elkarren kontran jartzen dituen gaien parodiak dira, eta hori bilatzen dugu, txar horren guztiaren gainetik herritar guztiak elkartzea eta barre egitea. Batzuekin dudak izan ditugu eta bat edo beste baztertu egin ditugu. Baina intentzio txar barik egindako letrak dira, umoretik jaiotakoak. Eta guk entseguetan egin bezala, jendeak bere buruaz barre egitea gustatuko litzazuke, oso terapia sana da eta.

Zuek egin duzue letraren bat, ezta?


Bai, baina denon arteko kontua izan da. *Modus operandia* honakoa izan da: norbaitek abesti famatu baten eta herriko ideia original baten arteko lotura egin, taldean partekatzen zuen eta, gustatu ezker, ekarpenak eginez osatzen genuen letra.



Ander Ariznabarreta (1994).



Miren Gallastegi (1991).



Oier Larreategi (1991).



Markel Gil (2000).

"POLITA DA IKUSTEA JENDE DESBERDINA ELKARTZEN GARELA HALAKO GAUZA BAT EGITEKO"

ANDONI ARIZNABARRETA

"JAI HERRIKOIETAN DENOK PARTE HARTU BEHAR DUGU BATERA EDO BESTERA, NIK MUSIKAREKIN"

AIMAR BENGOA

Inspirazioa nondik etorri zaizue?

Soraluce Opinatik. Bueno, hori da boteprontoan bururatzen zaigun broma baina, egia esan, ez da guztiz broma. Azken finean kantuotako gai asko herritarren kexuetatik irten dira, eta asko eta asko sareetan edo Pil-pileanen bertan publikatutako kontuak dira.

Eta emaitza da...



Eider Ariznabarreta (1998).



Aitor Oregi (1995).



Xabier Bengoa (1995).



Haizea Makinai (2007).

"HERRITARRAK KEZKATZEN DITUEN ETA ASKOTAN ELKARREN KONTRA JARTZEN DITUEN GAIEN PARODIA DIRA"

JONDAR PLATA ETA ANDER GOMEZ

"EA HALAKOEKIN JENDEAK IKUSTEN DUEN EUREN KABUZ ERE EGIN DITZAKETELA GAUZAK"

INES LASCURAIN

Soraluzeren iruditeria kolektiboa, umorearen ikuspuntutik landuta. Igual hitz potoloak dirudite, baina denetarik dago: herriko historia eta historian sortu diren istorio eta mitoak, ohiturak, pertsonaiak... eta gaur egungo problematikak. Orain ikusita, agian buruhauste gehiegi hartu ditugu, batez ere jaietako lehen eguneko 01:00ean jotzen dugula ikusita... Ez dakigu jendea asko enteratuko den, baina bueno, dantzatu eta ondo pasatu ezker, gu pozik.



SUGAR OSTOLAZA ABESLARIA

Sugar Ostolaza (Soraluze, 2009) eta Haizea Makinai (Soraluze, 2007) dira partaiderik gazteenak. Abestu egingo dute. Sugar Ostolazak esplikatu du zelan bukatu

duten proiektuan parte hartzen.

Zelan animatu zineten?

Idea proposatu ziguten eta dibertigarria izan ahal zela pentsatuta, animatu egin ginen.

Zelako esperientzia ari da izaten?

Oso ona. Niri asko gustatzen zaizkit halako gauzak eta oso gustura nabil entseguetan.

Zer da onena?

Entseguetan sortu den giroa.

Musika eskolako ikasle zarete biak, halako ekimenak pizgarri dira musika ikasten segitzeko?

Bai, zalantza barik.

Instrumentistak izan arren, ahotsak izango zarete Sagar-Erreka Mix-en. Zergatik eta zelan horrekin?

Ba, ahotsak behar zituzten, eta gu biok beste aldi batzuetan ere abesten ibili izan garenez...

Zeini gomendatuko zeniokeite ikuskizuna?

Batez ere, herriko gazteei, lagunei eta jai giroan ondo pasatzea nahi duen edozeini.

Euskalzaletasunaren alde:

aras



laibi
ELECTRICIDAD

Galtzagorriak indarberrituta

LEHEN EGUNEAN LAU KONTZERTU IZANGO DIRA ZUBI NAGUSIAN

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: PIL-PILEAN

Eguenean, uztailaren 24an, jaiak hasten lehenak izango dira gazteak. 12:00ak aldera jaurtiko dute txupinazoa Zubi Nagusiko iturritik, gero txosna zabalduko dute eta hortik aurrera, domekara arteko maratonia izango dute.

Galtzagorrien txosnagunerako prestatutako egitarauaren ezaugarriak nagusia da oso herrikoia dela. Txosna gazteek eurek kudeatzeaz aparte, txosnagunerako antolatu dituzten zazpi kontzertuetatik hiru herritarrek eskainiko dituzte. "Herriko jendeari gustatu ahal zaiolako herriko jendea ikustea eta polita izan ahal delako. Gainera, herrian badago herritarrekin gauzak antolatzeko aukera", esplikatu dute.

Gazte Bazkaria

Osterantzean, azken urteotako ohiturari eutsita, elkarrekin bazkalduz beteko dute Zubi Nagusia jaietako lehen eguneko Gazte Bazkaria. 15:00etan hasiko da eta txartelak dagoeneko salgai daude Iratxo goxo-denan, 12 euroan. Prezio barruan dago bazkaria gehi Galtzagorriek aterako duten jaietako zapia, koadroduna. Gero, zapiak txosnan ere jarriko dituzte salgai, erosi nahi duenarendako. Lehen eguneko bazkaria borobiltzeko, toka eta igel txapelketa jokatu dute.



Galtzagorriak zubiko iturrian, martitzenean.

Hortik aurrerakoak musikarekin beteko dituzte.

Painapple eta Polo Opuesto

Hain justu, egunean izango da herrikideen txanda eta egunik indartsuena zubian, hiru kontzertu izango baitira Galtzagorrien eskutik, 22:00etan hasita. Lehenengo Painapple eta Polo Opuesto igoko dira taula gainera eta 01:00etan jaietako izarren txanda izango

da, Sagar-Erreka Mix ikuskizuna taularatuko baitute.


Belako entzutetsuak

Barikuan, berriz, 20:00etan, Glutenbakuak talde aretxabaletarrak kontzertu akustikoa eskainiko du eta 01:00etan Fan&Go Zarauzko talde mitikoaren txanda izango da. Azkenik, jaiak borobiltzeko, zapatu gauean, Garraio Durangaldeko taldeak jardungo du 23:00etan eta jaien itxiera Mungiako Belako talde entzutetsuaren eskutik etorriko da, 00:30ean hasiko den kontzertuarekin.

Gazte berriak

Odol berrituta datoz aurtan Galtzagorriak, gazte mordoa

**EGUNEAN HIRU
KONTZERTU IZANGO
DIRA GALTZAGORRIEN
ESKUTIK, HIRURAK
HERRITARRENAK**




Belako talde bizkaitarra. BELAKO

gehitu baitira taldera. "Herrian gauza gehiago egoteko" helburuarekin animatu dira taldera berriak eta beteranoek eskertu dute haien partaidetza. Berriek ikusi dute jaiak antolatzeko "gauza asko" egin behar direla, "lan handia" dagoela eta diru aldetik "oso justu" ibiliko direla, "gauzak

geroago eta garestiago" daudelako. Baina eurena ipiniko dute eta polito datoz Galtzagorriak. Urte hasieratik ari dira jaiak prestatzeko lanean. Hori bai, txosnako txanda batzuk betetzea falta dela-eta, dei egin diete herrikideei izena eman eta laguntzeko.



Painapple taldearekin.



Gazte Bazkaria iaz.

100 bat lagunendako bazkaria plazan

Zubikoaz aparte, Plaza Zaharrean ere izango da txosnagunea. Hura kanoikadaren ostean zabaldu eta domeka eguerdira arte izango da zabalik.

Esan dutenez, edariez aparte, jana ere eskainiko dute: eguerdiro rabak eta pintxoak eta gauero ogitartekoak.

Horrez aparte, zapatuan, uztailaren 26an, presoen aldeko



Presoen aldeko bazkaria.

bazkaria egingo dute txosnaren kanpoko aldean, 14:30ean -zezenerako bukatuta-. 100 bat lagunendako bazkaria izango da, marmitakoa eta oilasko errea. Txartelak Arranon eskura daitezke uztailaren 21era bitartean.

1978az geroztik ipintzen dute Plaza Zaharreko txosna, "herriari jai-zerbitzua eman eta herriak bueltan lagun preso eta errefuxiatuei laguntasun keinua".

"Jendeak oso ondo hartzen gaitu Soraluzen"

MARTIN RECALDE, INA PEÑALBA ETA MIKEL OREGI POLO OPUESTO



Martin Recalde, Ina Peñalba eta Mikel Oregi.

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Mikel Oregik (Soraluze, 1998), Ina Peñalbak (Soraluze, 1997) eta Martin Recalde (Eibar, 1997) osatzen dute Polo Opuesto. Kontzertua joko dute Galtzagorrien txosnagunean lehen egunean. Eurentzat herri berezia da Soraluze, 2015-2016an bertan ezagutu eta sortu zuten Polo Opuesto. Aurten, beritasunekin datoz.

Bi izatetik hiru izatera?

Bai, aurten. Aurreko diskoa ere Inarekin atera genuen, baina kantak erdi eginda zeuden. Oraingo diskoan, berriz, hasieratik egon gara hirurok. Ahotsak guk (Oregik eta Rekaldek) eta musika Peñalbak egin du. Orain arte, instrumentalak youtubetik

hartzen genituen baina orain Ina daukagu.

Ina Peñalba: Instrumentu klasikoak erabili ditut hip-hopera bideratuta, gitarra, pianoa, kaxa, bonboa, tronpeta, saxofoia...

Disko berria eginda dago?

Ez dago amaituta. Kantak eginda daude baina orain ondo grabatu behar dira eta xehetasunak landu. Izango dira 11 kanta eta Intro eta Outro. *Extinto* izena izango du. Fisikoan ere aterako dugu, asko ez, ze gure poltsikotik ordaindu behar dugu, baina aterako dugu.

Orain arte kritika soziala, zuen bizipenak... kantatzen zenituzten, bide beretik dator *Extinto*?

Lehen, akaso, gehiago egiten genuen kritika soziala; orain gehiago gure bizipenak

kantatzen ditugu, kalean edo gure bizitzan ikusten duguna. Kritika soziala egiten dugu baina ez da helburua hori egitea, egiten dugu irten egiten delako.

Soraluzen diska berria aurkeztuko duzue?

Bai, disko berriko kantak abestuko ditugun lehen aldia izango da. Abesti zahar pare bat ere bai, baina gehienak berriak.

Zergatik Plazentzian?

Soraluzen egin ditugun kontzertu guztiak izan dira bastante emotiboak guretzat, ze jendeak oso ondo hartzen gaitu, babes handia izan dugu eta pentsatu dugu aukera ona dela kanta berriak kantatzeko.

Mikel: Berenjena egunean gaztetxean inprobisatutako kontzertua ondo egon zen. Abisatu barik egin genuen eta oso ondo egon zen.

Taula gainean hirurok bakarrik?

Ez, sorpresak izango dira.

Soraluzen 2022an jo zenuten azken aldiz. Nonbait ibili zarete?

Bai, leku nahikotan. Etena izan dugu kantak ateratzeko orduan, baina jarraitu izan dugu gure artean elkartu eta repeatzen. Kantuen letrak, adibidez, bakoitzak berarenak baina elkarrekin egoten gara eta lagundu egiten gara.

Nahi baduzue beste zerbait esan...

Jendea etor dadila kontzertura. Polo Opuestoren giltzatakoak egongo dira salgai 2 euroan.

Giltzatakoak? Zergatik?

Dugulako lagun bat egiten dituela gauzak 3D inprimagailuarekin, Jon Caballero. Eta eskerrik asko kontzertura etortzen diren guztiei Polo Opuesto entzuten duten guztiei eta pazientzia izan dezatela, ze tardatuko du etortzen, baina disko berria potente dator eta merezi izango du itxarotea.

Futbitoa eta pilota jaialdia

FUTBITOKO LIGAKO FINALERDIAK GAUR JOKATUKO DITUZTE

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

Kirolen atalean, jaietako klasiko izaten dira futbito txapelketako finalak eta pilota jaialdia eta aurten ere biak ala biak daude prest. Ohi denez, futbito txapelketako finalak kanoikada egunean jokatu dira eta pilota jaialdia, berriz, hurrengo egunean izango da, barikuan.

Ligako finalerdiak

Futbito Txapelketari dagokionez, 14 taldek osatu dute txapelketa, iaz baino bost gehiagok. Maiatzaren erdialdean hasi ziren partidak eta beste behin, kiroldegia ikuslez bete egin da partidak ikusteko. Finalei dagokienez, Ligakoa zeinek jokatu duen erabakitzea falta da. Gaur iluntzean, barikua, jokatu dira finalerdiak.

Lehenengo partida Kastakuak eta LTCren artekoa izango da, 19:30ean hasiko da. Bigarren finalerdian, berriz, liderrak arituko dira, laugarren futbito txapelketa eskuratu nahi duen Jubiletak taldea txapelketa osoan atzetik segika izan duen Unión Fútbol Salak taldearen kontra, hain zuzen; partida hori 20:45ean hasiko dute, dena ondo bidean.

Ligako finala uztailaren 24an, kanoikadaren ondoren jokatu da, 19:30ean.


Kopako finala

Osterantzean, Kopako finala zeinen artekoa izango den joan



LCE taldea El Rincón-en kontra, finalerdian.

den astean erabaki zen. Finalerdietan, Drink Team taldeak 7-0 irabazi zion Marsora taldeari eta LCE taldeak 4-2 irabazi zion El Rincón taldeari. Beraz, Drink Teamek LCEn kontra dauka finala, uztailaren 24an, 17:45ean.



Manex Balerdi eta Aitor Atxotegi, maiatzan.

Pilota jaialdia

Jaietako pilota jaialdiari dagokionez, berriz, uztailaren 25ean, barikua, 18:30ean hasiko da, Soraluze Pilota Elkarteak antolatuta. Araneko frontoian da hitzordua eta bi eskuz binakako jokatu dituzte, batetik, jubenilen mailakoa eta bestetik nagusien mailako eskuz binakakoa.

Gazteen kasuan, Amuategi soraluzetarrak eta Ormaetxea bergararrak osatu dute bikotea eta aurkari izango dituzte Etxabe bergarra eta Gisasola eibartarra. Nagusietan, berriz, Soraluzeko Pilota Taldeko Aitor Atxotegi eta Manex Balerdi izango dira bikote eta haiek aurkari izango dituzte Soraluzeko taldean jokatu duen Etxaniz bergarra, Elorrioko Azkarragarekin bikote eginda.

"Gau polit, desberdin eta giro sanoa nahi badute, etor daitezela"

MIKEL ARTUCH MUSIKARIA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: LOS TENAMPAS

Barikuan, uztailaren 25ean, plaza kantuan eta dantzan jarriko du Los Tenampas talde nafarrak -00:00etan-. Bigarren aldiz etorriko dira Soraluzera. Patxi Artuch aita eta David eta Mikel semeak dira taldearen arima eta bihotza. Mikelek kontatu du familian daramatela musika.

Zelako plaza da Soraluze?

16 urte daramatzagu plazaz plaza. Plaza batetik berriro deitzen badizute, plaza polita da hori, inportantea, beraz, gogo askorekin goaz. Oroitzapen ona dugu.

Zelako ikuskizuna ekarriko duzue?

Soraluzera boskotea goaz, aita Patxi, David anaia, neu eta bi tronpeta, Ibai Olague eta Carlos Zubiate. Mexikoko musika tradizionala eskainiko dugu eta euskaraz ere abestuko dugu. Ikusle mota guztiei zuzendutako ikuskizuna da, oso entretenitua.

Ze hiru kanta ez dira faltako?

El Rey, Volver eta *Caballo Prieto*. Horiek bai ala bai jo behar dira. Eta euskaraz, *Salvadorren Heriotza*, *Txoria txori*, *Ireki bihotza* eta *Ay anselma!*, adibidez.

Bestelako herri batzuetan ibili zarete ikuskizun horrekin?

Taldean hiru formatu ditugu, hirukoa, boskotea eta mariatxi



Los Tenampas taldea, boskote formatuan.

osoa. Urtean ematen ditugun 95-100 kontzertuetatik 40 bat dira boskote formatuan.

Kontzertu mordoan ematen dituzue...

Bai, orain urtea luzatzen doa. Lehen udan bakarrik, orain ia urte osoan. Ahalegintzen gara urte amaieran atseden hartzen.

Musika familian daramazue, ezta?

Bai. Aita beti izan da abeslaria, mariatxiak, jotak eta halakoak gustatzen zaizkio, etxean ez genuen besterik entzuten. Hori barrura sartzen doa. Gainera, Nafarroa iparraldeko jaietan ere mexikanadak entzuten genituen beti. Anaiak soinua jotzen du eta gure ospakizunak beti mexikanadak abesten amaitzen ziren, azkenean, 2006an Napar Mex-arekin hasi

ginen. Gero, 2009an Mexikora joan nintzen pilotan jokatzera, eta bueltan, hango musika mordoan ekarri nuen eta herriz herri kantatzen hasi ginen. Baina zerbait landuagoa behar genuela ikusi genuen eta mariatxia sortu genuen lehenengo, eta gero boskotea, plaza txikiagoetara egokitzeke. Azkenean, plaza txikiagoetan ere show duina eskaini nahi dugu eta ikusten dugu jendeak ondo pasatzen duela, horrexegatik ematen ditugu horrenbeste kontzertu.

Zer esango zenieke soraluzetarrei?

Etor daitezela, gau polit, desberdin eta giro sanoa nahi badute, abestu eta dantzatu egingo dute eta oso tarte polita pasatuko dute.

"Ikuslea sartzen da bidaia antzeko batean"

IDOIA ASURMENDI ABESLARI ETA MUSIKARIA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: EIDER BALLINA

Idoia Asurmendi (Aramaio, 2000), abeslari, pianista eta konpositore aramaioarra da. 2021ean, 20 urterekin bere lehen albuma argitaratu zuen, *Ilun eta Abar*. Iaz, berriz, bigarren diskoa kaleratu zuen, *De amar y desandar*.

Gazte-gaztetik taula gainean...

8 urterekin hasi nintzen pianoa ikasten eta neuzkan pianoko audizioak, baina hasi, 12 urterekin hasi nintzen kontzertuak ematen; sortu nuen lagunekin taldea, Aramaio inguruko herrietan jotzen ibiltzen ginen eta talde askotan parte hartzen hasi nintzen. 16-17 urterekin hasi nintzen nire kontzertuak jotzen, hasieran, bertsioak pianoaz eta gitarrak, kontzertu akustikoak. 2020an mordo egin nituen. Gero, 2021ean atera zen lehen diskoa eta orduan ere kontzertu mordo eman genituen.

Aurten ere topera zabiltza, ezta?

Bai, aurreko urtean bigarren diskoa atera genuen, *De amar y desandar*, eta, ordutik diskoa aurkezten geratu barik nabil. Maria Osés idazle



Idoia Asurmendi.

arrasatearrarekin batera, berriz, hasi naiz poesia-musika uztartzen dituen emanaldia eskaintzen eta mila proiektutan sartuta nabil, egia esan. Bigarren diskoa ere oso ondo doa. Aurreko urtean hasi ginen aurkezten eta oraindik segitzen dugu eta hori baloratzeko modukoa da. Ezin du edozeinek hau bizi: kontzertu mordo, jende mordo ezagutu,

proiektuak... ni oso pozik eta oso eskertuta nago.

Oso-oso gaztetatik taula gainean, 25 urterekin ya bi disko, kolaborazio asko... noraino gustatuko litzaizuke iritsi?

Ez dut sekula pentsatu noraino gura dudan ailegatu. Ailegatu naiz bizitzak ipinitako erronka eta puntu horietara baina nik gura izan barik. Joan naiz bidea egiten eta bideaz disfrutatzen eta ailegatuko naiz ailegatuko naizen lekuraino. Ez dakit hori den irudikatu edo imajinatu ahal den zerbait.

Soraluzeko kontzertua zelakoa izango da?

De amar y desandar diskoaren aurkezpen biraren parte da. Oraindik geratzen zaizkigu herriak diskoa aurkezteko. Soraluzen lehenengoz egongo gara, talde osoaz. Joanes Ederra baxo-kontrabaxoan, Ander Ederra gitarrekin, Txus Aranburu teklekina eta Dabid Gorospe bateriarekin. Talde honekin jotzea gozada bat da. Musikak eman didan gauzarik onena da bidean jendea ezagutzea eta jendearekin kantatu eta jo ahal izatea; pertsona horiek bidelagun izatea demaseko zortea da. Bigarren eta lehen diskoko kantuak joko ditugu. Orain arte egin dudanaren laburpena. Diskoa kontzeptuala da eta kontzertuak ere hori mantentzen du. Ikuslea sartzen da bidaia antzerako batean, ordubete eta laurden ingurukoa. Edozeinek entzuteko modukoa da. Musika lasaia, oso intimoa, baina baditu ere bere momentu alaiagoak eta dantzagarriagoak. **Zer esango zenieke soraluzetarrei?** Animatzeko, ez naizela sekula egon hor kantuan eta polita izango dela seguru.

ZORION AGURRAK



Maren Agirre Aizpitarte
Abuztuaren 14an 14 urte. Zorionak Maren!



Aiora Sudupe Agirre
Uztailaren 15ean 9 urte. Zorionak Aiora!



Irati Calles Agirre
Uztailaren 23an 14 urte. Zorionak Irati!



Itzian Agirre Arrizabalaga
Abuztuaren 15ean 52 urte. Zorionak Itzi!



Alana eta Nare Berraondo
Uztailaren 23 eta abuztuaren 8an, 35 urte eta urte bat. Mila kilo zorion etxekuen partez.



Mara Carretero Mendo
Abuztuaren 7an 3 urte. Zorionak! Jarraitu gure bizitzak alaitzen, ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Muxu haundi bat etxekoen partez.



Miguel Ángel Romero Cano
Abuztuaren 1ean 3 urte. Zorionak!

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Maria Concepcion Iraolagoitia Mendive
Jose Miguel Iriondo Ostolaza
Josefina Zubizarreta Gabilondo
Alberto Gallastegui Oregui

Jaiotakoak

Gabriela Correa Reyes



Kontugest
GROUP

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontugest.com



Gaztelupe Taberna

Jaietan, pintxo goxoak eta gazteentzako festa terrazan, DJ Dandy-rekin! Ondo pasa!



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkateak Elkarlanean
Garaileko Berritzailea



ROSA M^a PINTADO

Etxaldeko Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean hainbat konponketa egin dira pilare aizunetatik bideratutako hondakin-uren hoderia aldatzeko. Lokalen onerako izan da pila-reak kendu eta hodiak sabaitik bideratu dituztelako. Lokalen jabeak eskatu du lokal guztiak estaliko dituen sabai bat egitea. Jakin nahi nuke ea jabeak eskari hori egin dezakeen eta hala balitz ea lokal guztiko sabaia estali behar-ko litzatekeen ala hodiak estaltzeko beharrezko zatia baino ez.

Lehendabizi jakin beharko litzateke komunitatea derrigortuta dagoen ala ez estetika-kalteak ordaintzera, guztien elementuei dagozkien konponketa lanak egiterakoan komunitatea jabetza pribatu batean sartzen denean. Nire ustez eska daiteke sabai hori jartzea, baina ez lokal guztia estaltzea, hodiak tapatzeko behar dena baizik, hori baita estetikoki kaltetutako zatia. Kalte-estetikook komunitateak ordaindu beharko ditu. Izan ere, ezbeharrak eragindako kalte guztiak ordaintzera derrigortuta dago.

Aholkua: Lokalean izandako eragin kaltegarri guztiak konpontzeko egin behar dira lanak eta horien artean daude konponketa estetikoak. Beraz, lokalaren jabeak eska dezake lan horiek estetika errespetatuz egitea.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ESKELAK

V. URTEURRENA



**Arantzazu
Amasorrain
Linacisoro**



2020ko uztailaren 9an hil zen.

Maitasunez eta esker onez.

Etxeakoak.

ESKER ONA



**Alberto
Gallastegui
Oregui**



2025eko uztailaren 15ean, 92 urte zituela.

Aitxitza, zure irriparra beti gure aldamenean egongo da.
Familixan partez, milla esker gurekin bat egin duzuen herritar
guztieri.

Familia.

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsiak, atsek, barandilak salmenta eta korponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bazter Ertza Kalea 2 - 20090 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

676 556 817 - 943 75 21 38

Icons: car, truck, forklift, person, etc.

Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgenak, ogitariekak, radiak, pizzak, gosaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

MENDIZABAL
okindegia

Ogla • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67

HNOS. BENITO
ANAKAK
MUEBLES-ALTZARIAK

38 urteren ostean, ixtera goaz
Eskerrik asko urte guztiotan
gurekin izandako
fideltasunagatik!

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bidotsa
Etxeak frituak
Soufflés

Tel.: 943 75 10 02



Soralucek jai
zoriontsuak opa
dizkizue!

DANOBATGROUP

